



AZTERTZEN

ekin eta ekin

LEHEN HEZKUNTZA

2. zikloa

*Azken urteotan aldaketa nabariak izan ditu gure dietak. Aldaketa horien onura eta kalteez ohartzen lagunduko digun ikerketa txiki bat egitea proposatzen dizuegu.*

*Lehenengo eta behin, inkesta prestatuko dugu: ikasleek beren inguruko helduen iritziak jasoko dituzte (guraoenak, aitaita-amamenak, auzokoenak...).*



# Gure dieta eta aitaita-amamena

## Gai honekin zerikusia duten arloak

- INGURUNE NATURAL ETA SOZIALAREN EZAGUERA.



## Aitaita-amamei galdezka

- Esan orain dela urte batzuk ezezagunak edo oso bitxiak ziren 5 jakiren izenak.
- Zuen ustez, zergatik ez zen horrelakorik ikusten?
- Zein zen zure janari gustukoena txikitán? Jaten al duzu oraindik?
- Zer jaten zen egun handietan (Gabonak, herriko jaietan ...)?

## Bi sasoiak alderatzen

Ondorengo galderari erantzun, lehenengo eta gaurko bizimoduak bereiziz eta bakoitzaren onurak eta eragozpenak aipatuz.

## HELBURUA

- Gizakion ekintzak inguruneari dakartzkion onura eta kalteez jabetzea.

1. Nondik hartzen ziren jakiak: hurbileko tokietatik ala urrundik?

Zer onura eta zer traba dakartza gaur gure supermerkatuetan munduko edonongo jakiak erosi ahal izateak?

2. Soroak lantzeko era: erabiltzen al zen lehen ongari artifizial, herbizida eta horrelakorik?
3. Jaki galkorrak (okela, arraina, frutak...) mantentzeko erak: zer kontserbazio modu berri asmatu da?, aitzinako zer teknika mantentzen dira?
4. Jakien itxura eta salmenta: ontziraturik saltzen al zen jakiren bat?, beharrezko al deritzozu guztiak bildurik edota ontziraturik aurkezteari? Nolakoa zen, zure iritziz, merkatuetako higienea?

Lan talde osoak, lortutako emaitzak aztertuta, ondorioztapenak egin eta honako galderari erantzuten saiatuko gara:

- Zer onura eta zer kalte zekarren garai hartako dietak, gurearekin alderatuta?
- Zer ondorio eragiten diote aldaketa horiek (jakien garraioak, ontziratzeak, mantenuak, ongailu eta pestiziden erabilerak) ingurugiroari?